

Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Burgi

Aurkibidea

Udalerria: Burgi

Sarrera



Nafarroa Garaiko ipar-ekialdeko udalerria, Erronkariko ibarrean kokatua. (Argazkia [Wikipediatik](#) hartua)

- **Biztanleak:** 203
- **Euskaldunak:** %4,26

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **4**
- Pasarteak: **36**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **36**

Proiektuak

- Gazte gara gazte
- Periferiaren mugak

Hizlariak

Leire Alastuey De Miguel (1989)



1989. urtean jaio zen Leire, urriaren 20an, Iruñean. Ama Uztarrozekoa du eta Burgikoa aita. Bi senidetan gazteena da. Iruñean bizi izan da beti, baina lotura handia du Erronkari bailararekin, eta batez ere, amaren eta aitaren herriekin. Astebururo eta oporraldi guztietan joaten da batera ez bada, bestera. Erronkariko Gazte Asanbladako partaide da. Lehen hezkuntzako musika irakasle da lanbidez, eta eskalatzea du afizio, beste hainbat kirolen artean. Hezkuntza, kirol, natura, parranda, lagunarte eta halako hainbat kontu ditu mintzagai Ainhoa Elizalderekin batera eskainitako elkarrizketan.

Ainhoa Elizalde Ojer *Peligorri* (1990)



1990. urteko abuztuaren 14an jaio zen Iruñean, baina Zangozan eta Atarrabian bizi izan da, eta ikasketak egin bitartean, Bilbon. Baina ama Zangozakoa eta aita Burgikoa ditu, eta Burgira igo izan da betidanik asteburuko eta oporraldi ia gehienetan. Bere sustraiak Erronkarin dituela sentitzen du, eta bertakoa sentitzen da. Turismo bulego batean aritzen da lanean, eta oso gustuko du kirola egitea: bizikletan, pilotan, mendian zein eskiatzen ibili ohi da, eta txistua jotzen ere badaki. Hainbat konturi buruzko testigantzak eskaintzen ditu Ainhoak, eta tartean, Erronkariko hizkera ahal den neurrian berreskuratze bidean jartzeak egingo liokeen ilusioaz.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Asteburutan bikoiztu eginten da populazioa (BUR-001/004)

Nafarroako hainbat herritan oso ohikoa den errealitate baten berri ematen dute. Asteburutan jendez bete ohi da hainbat herri txiki; eta zer esanik ez, udan.

2. Herria bete eta hustu (BUR-001/005)

Gorabehera handiak izaten ditu Burgik jende kopuruari dagokionez, turistak eta bigarren etxebizitza bertan dutenak bertaratzean.

3. Erronkarin "igo" ala "jaitsi" egiten da herrietara (BUR-001/006)

Gurasoengandik jaso dute herrietara "jaitsi" ala "igo" egiten diren zehaztearena.

4. Kuadrilla eta zaletasunak konpartitzen dituzten lagunak (BUR-001/007)

Kuadrillan denak adinkideak dira, baina denek ez dituzte zaletasun berdinak.

5. "Kuadrillismoa" (BUR-001/009)

Kuadrillako lagunak "tokatu" egiten dira, eta zenbaitekin ez da jakiten zeri buruz hitz egin ere.

6. Burgin euskaraz (BUR-001/011)

Burgin gehiengoak ez dio garrantziarik aitortzen euskarari, baina bada gazteak euskaraz mintzatzen jarraitza animatzen dituenik ere.

7. Euskararen erabilera etorkizuneko Erronkarin (BUR-001/013)

Euskararen erabilerari dagokionean, etorkizunari begira oso baikor dira Leire eta Ainhoa, eta jada bailaran sumatzen diren aldaketetan oinarritzen dute baikortasun hori. D eredua ezartzea eta AEKren lana aipatzen dituzte.

8. Haur Eskola euskaraz (BUR-001/014)

Haur Eskola euskaraz eskaintzea aurrerapauso nabarmena.

9. Bakardadea disfrutatzen (BUR-001/016)

Burgin bizitzeak erakutsi die beste inorren beharrik gabe disfrutatzen.

10. Naturaz disfrutatzen (BUR-001/018)

Naturaz disfrutatzea oso gogoko dute, eta horretarako beharra sentitzen dute, gainera.

11. Parranda egiten ere badakigu! (BUR-001/020)

Erronkari bailarako 7 herritako jaietara joan zaleak dira. Asko disfrutatzen dute herri txikietako jaietan, herri osoa plazan biltzen den horietan.

12. Hona ez da inor etortzen (BUR-001/022)

Erronkari bailarako herritako jaietara ez da hiriko jenderik gerturatzen, baina bai inguruko herri eta bailarako jende ugari.

13. Gazte mugimendua Erronkarin (BUR-001/024)

Erronkariko gazte asanbladak baliatzen ditu bailarako herrietara jendea biltzen deneko uneak, hainbat mezu zabaltzeko; esate baterako, euskararen aldekoa.

14. IKTen beharrik ez (BUR-001/028)

Burgin ez dute IKTen beharrik. Hartuemanak bestelakoak dira.

15. Pirinioko biztanleen aldarrikapenak (BUR-001/030)

"Bizirik gaude eta bizirik jarraitu nahi dugu"

16. Erronkariko euskara I (BUR-001/031)

Erronkaria ahal den neurrian berreskuratzea da Ainhoaren ametssetako bat.

17. Erronkariko euskara II (BUR-001/033)

Erronkarierak iraun ez izanak sortzen dien minaz eta berreskuratze prozesuareari begirako asmoak.

18. Hiriaz nekatuta (BUR-002/002)

Ainhoak Bilbon ikasi zuen eta bertan ohartu zen ez zuela hiriko bizitza gustuko. Hiriaz nekatuta, Durangora joan zen bere izekon etxera bizitzera. Gustuko du Bilbo, baina ez egunerokoan bizitzeko.

19. Esku pilotan edonon (BUR-002/003)

Esku-pilotarako duen zaletasunaz dihardu. Pertsona oso lehiakorra da Ainhoa eta betidanik, gustuko izan du kirola egitea. Ainhoak txikitatik jolastu du esku-pilotara eta neskak tenika izanez gero mutilak bezain ongi jokatu dezaketeela uste du.

20. Txistua jotzera mendira (BUR-002/004)

Ainhoak kirola eta musika nola uztartzen dituen kontatzen du. Txistua mendira eraman eta bertan jotzen du.

21. Burgi eta Uztarroz artean (BUR-003/002)

Leire Burgi eta Uztarrozen ibiltzen da. Aukera hori izateak, bere alde onak eta txarrak ditu.

22. Erronkariko gazte-asanblada (BUR-003/003)

Leire Erronkariko gazte asanbladako kidea da. Asanbladak bailaran duen funtzioa garrantzitsua da, bere helburua bailara biziberritzea baita. Bost urte daramatzate asanbladan herritik herriarentzat lan egiten.

23. Korrika Erronkariko bailaran (BUR-003/005)

Korrika Erronkariko bailaratik lau urtetik behin igarotzen dela kontatzen du eta horren zergatiak. Hala ere, Korrika igarotzen ez den urtean, eurek antolatzen dute euren Korrika alternatiboa.

24. Korrika Erronkariko bailaran (BUR-003/006)

Korrikak Erronkariko gazteei ahalegin gehigarri bat eskatzen die bailarako herrien artean distantziak luzeak baitira eta ondorioz, taldeka banatu behar izaten dute Korrika ez gelditzeko.

25. Gustuko musika (BUR-003/008)

Leirek ez du musika estilo jakin bat gustuko, denetik entzuten du. Momentu jakin bakoitzerako musika mota bat aukeratzeko ohitura du.

26. Hurrei aniztasun musikala erakustearen garrantzia (BUR-003/009)

Leire lehen hezkuntzako musika irakaslea da eta bere ikasleekin ere momentu bakoitzerako musika mota bat aukeratzen du. Ikasleei musika estilo asko daudela erakutsi nahi die eta horregatik, estilo desberdinetako musika jartzen die.

27. Euskararekiko jarrera hobetu da Burgin (BUR-004/002)

Euskararen egoera aldatu egin da herrian (Burgin). Orain jarrera hobea dago euskararekiko.

28. Burgin ezin da egun oso bat euskaraz egin (BUR-004/003)

Burgin ezinezkoa da egun oso bat euskaraz bizitzea. Adibidez, ogia ezin da euskaraz erosi.

29. Ezagutza eta erabilera ez datoz bat (BUR-004/004)

93. urtetik aurrerako gazte guztiek dakite euskara. Hala ere, ez dago erabiltzeko ohiturarik

30. "Uskara" (BUR-004/005)

"Uskara": Erronkariko euskara.

31. Erronkarierazko hiztegi berria (BUR-004/006)

Erronkarierazko hiztegi bat egiten ari da Josune Hernaez.

32. Erronkarieraz (BUR-004/009)

Ainhoak erronkarieraz hitz egin digu.

33. Erronkaria ikasteko materiala (BUR-004/011)

Erronkaria ikasteko materiala badago. Hori bai, herritarrek egindako liburuak dira

34. Burgi, periferia (BUR-004/012)

Burgi muga-mugan dago eta Ainhoa periferian sentitzen da.

35. Ikasketak euskaraz (BUR-004/016)

Erronkari ibarreko gazteak, euskaraz ikasten jarraitzeko, Iruñera joan behar dira.

36. Euskararen etorkizuna Burgin (BUR-004/018)

Euskararen etorkizuna Burgin.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com